

IRAKASKUNTZA PRIBATUAREN GASTU ETA FINANTZAKETAREN ESTATISTIKA. 2023

Euskal AEko ikastetxe pribatuen guztizko gastua % 15,1 hazi zen 2023an, 2021aren aldean, eta 1.407 milioira iritsi zen

2021etik 2023ra bitartean, ikasle bakoitzeko irakaskuntza-kostua % 7,3 hazi da, eta % 10,8 eskola-unitate bakoitzeko

Eustaten datuen arabera, irakaskuntza pribatuko sarea osatzen zuten ikastetxeen guztizko gastua 1.407 milioi eurokoa izan zen 2023an, 2021ean baino % 15,1 gehiago. Sektorearen gastu osoaren zatirik handiena unibertsitatearen aurreko mailetakoa ikastetxeetan kontzentratu zen, % 85; unibertsitate-zentroak % 13 izan ziren, eta arte-irakaskuntzetara bideratutakoak gainerako % 2ra iritsi ziren.

Gastu osoa eta irakaskuntzako gastua Euskal AEn, ikasleka eta unitateka. 2007-2023

	2007	2009	2012	2015	2018	2021	2023	Gehikuntza (%) 2023/2021
Guztizko gastua (mila euro)	889.011	1.062.383	1.043.941	1.052.497	1.175.342	1.222.880	1.407.302	15,1
Irakaskuntza-gastua ikasleko (eurotan)	3.933	4.443	4.345	4.277	4.404	5.031	5.567	10,7
Irakaskuntza-gastua unitateko (eurotan)	79.425	89.479	86.866	89.966	95.182	122.464	139.926	14,3


Data 2025eko Urtarrilaren 17a

Iturria: Eustat. Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

2023an gastu arrunta 1.324 milioi eurokoa izan zen, eta 2021etik 2023ra % 13,8 igo zen. Gastu arrunt gehiena (% 72) langileetara bideratu zen. Nabarmenezkoa da 2021aren aldean jarduera osagarrietan (+%126,8) eta zerbitzu osagarrietan (+44,6) egindako gastuaren gorakada, pandemiaren aurreko mailak berreskuratu eta gainditu baitituzte.



Euskal AEko zentro pribatuetoako irakaskuntza gastuaren bilakaera (milaka euro). 2009-2023



Iturria: Eustat. Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

Funtzioen arabera gastu arruntaren barruan, irakaskuntza funtzioak 1.187 milioi euroko gastua ekarri zuen, 2021ean baino % 10,5 gehiago.

Bestalde, kapital-gastuak % 40,7 egin zuen gora 2021aren aldean, 2018an izan zen inbertsio-mailara hurbilduz.

Ikasle-unitateko edo taldeko bakoitzeko irakaskuntza-kostua 5.585 eurokoa izan zen, 2021ean baino % 7,3 gehiago, eta unitate bakoitzeko irakaskuntza-kostua 140.374 eurokoa izan zen, 2021ean baino % 10,8 gehiago. Irakaskuntza-kostuetan, ikastetxearekin kontratu-harremanik ez duten eta ordainsaririk jasotzen ez duten irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuaren zenbatespena sartzen da.

Bestalde, eskola-unitateko irakaskuntza-kostuak 82.847 eurokoak eta 112.733 eurokoak izan ziren Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, hurrenez hurren (2021ean baino % 8,2 eta % 16,8 gehiago, hurrenez hurren). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) 139.110 eurokoak izan ziren (+%14,6), 127.250 eurokoak (+%12,5) Lanbide Heziketan (LH) eta 165.956 eurokoak Batxilergoan (+%7,9). Helduen Hezkuntzan (HH) unitateko kostua 54.403 eurokoa izan zen (-%3,5).

Ikasle bakoitzeko irakaskuntzaren kostua 5.221 eurokoa izan zen Haur Hezkuntzan, 5.060 eurokoa Lehen Hezkuntzan, 6.129 eurokoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 6.042 eurokoa Batxilergoan, 6.169 eurokoa Lanbide Heziketan eta 1.916 eurokoa Helduen Hezkuntzan. Gainera, Unibertsitatean, ikasle bakoitzeko gastua 7.950 eurokoa izan zen, eta Arte Irakaskuntzetan 1.916 eurokoa.

Diru-sarrerei dagokienez, zentro pribatuen guztizko sarrera 1.410 milioi eurokoa izan zen; horietatik % 99,3 sarrera arruntei zegozkien eta gainerako % 0,7a kapital-sarrerei. Dirulaguntza publikoak dira sarrera arruntaren iturri nagusia (% 62,9), eta partaidetza hori ehuneko 1,1 puntu jaitsi da 2021aren aldean; ondoren kuotak datoz, sarrera arruntaren % 34,1, eta horien barruan irakaskuntzakoak (% 22,7) eta zerbitzu osagarrietakoak (% 8,9).

Oro har, **kuoten bidezko diru-sarrerak** 481 milioi eurokoak izan ziren, eta horietatik irakaskuntza-kuotak guztizkoaren % 66,6 izan ziren.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62